

5.a	2. EZAGUTZA FITXA	OBJEKTU TEKNIKOAREN AZTERKETA ETA DISEINATZEA <i>Jakin behar dudana</i>	
------------	----------------------------------	---	--

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Bortxak : funtzionalak, ergonomikoak, estetikoak, ekonomikoak, ekologikoak, seguritateari lotuak	1 (« badakit »)	- hautatutako aterabide teknikoak eta bete behar diren bortxak elkartu.
	1 (« badakit »)	- sorkuntza garaian indarrean zegoen estilo artistikoa eta hautu estetikoak uzartu.
Testuinguru soziala eta ekonomikoa	1 (« badakit »)	- era kualitatiboan, objektu tekniko simple baten diseinatzeari eta merkaturatzeari doakien testuinguru sozial eta ekonomiko baten eragina identifikatu.

Oinarri bateratua

3	Ingurumena eta garapen iraunkorra	Ingurumena eta garapen iraunkorrari doazkien galderak ulertzeko bere ezagutzak erabili.
----------	--	--

1- BORTXAK

Diseinatzaileak **zailtasun** edo **betebehar** batzuk kontuan hartu beharko ditu objektu teknikoa sortzerakoan : **bortxak** dira. Bortxa horiek diseinatzailearen hautuak mugatuko dituzte.

Bortxa batzuk :

- | | | |
|----------------------------------|---------------------------|---------------------------------|
| - objektu teknikoaren ingurumena | - haren funtzionamendua | - normak eta arauak |
| - haren bizi iraupena | - haren estetika | - erabiltzaileen seguritatea... |
| - haren birziklapena | - haren ergonomia | |
| | (erabiltzeko erraztasuna) | |

Aterabide tekniko bakoitzaren hautua hainbat **bortxaren** arabera egingen da.

Bortxak	Aterabide teknikoaren gainean duen eragina
Klimari edo kokapen geografikoari lotuak	<ul style="list-style-type: none"> • Zurbeso ageriko etxearen egitura, mendiko borda, gune babestuen hurbiltasuna, ... • Teilen kolorea, teilatuen isurkiak, teilatuen itxura, ... • Teilatu motak : buztinezko teilak, arbela, lastoa, ohol edo lata, ... • Baliabideak...
Garapen iraunkorrari lotuak	<ul style="list-style-type: none"> • Materiala birziklagarria • Eraikinaren eraginkortasun energetikoa, berotzeko aterabidea, ... • Ur-hustuketa eta saneamendua, ...
Seguritateari lotuak	<ul style="list-style-type: none"> • Igogailua, sokorri-aterabideak, • Lurrikaren kontrako normak, • Suteen kontrako materialak, suteen kontrako alarmak... • Babeslekuak tuneletan, e.a. ...




Gune babestua, historikoa...



Eraikin berriek hartzen duten itxura

Elurra jasaiten duten eskualdeak



teilatu zorrotzak

Eskualde idorreko klima (prezipitazio guti)



teilatu laua

2- TESTUINGURU SOZIAL ETA EKONOMIKOA

Erabiltzailearen **testuinguru sozio-ekonomikoa** (bizi den lekua, ohiturak, kultura...) eta **ingurumen inpaktua** (garapen iraunkorra) ere kontuan hartuko dira

Aurrekontu desberdinak (dirua)



bizitegi kolektiboa



bizitegi indibiduala